

OINARRIZKO BALIABIDEAK:

Hauek dira Lumtech enpresak bere produktuak saldu ahal izateko beharko dituen Oinarritzko Baliabideak:

Azken teknologia:

Azken belaunaldiko hardwarea eta softwarea beharko ditugu gure errealitate birtualeko zerbitzu aurreratuak ekoizteko. Hor sartuko dira errealitate birtualeko ekipoa, adimen artifizialeko sistemak eta bideojokoak garatzeko plataformak.

Eduki erakargarria:

Merkatuan nabarmentzeko, arreta deituko duen edukia behar dugu. Horrek esan nahi du esperientzia birtual erakargarriak diseinatzeko eta garatzeko gai izango den talde sortzaile bat eduki behar dela, bizitzaren laburpenak sortzetik bideojokoaren programaziora arte.

Garatzeko eta programatzeko gaitasunak:

Software espezializatua sortzeko eta mantentzeko gaitasuna oso garrantzitsua da. Horretarako, errealitate birtualean, adimen artifizialean eta bideojoko aurreratuetan esperientzia duten programatzaileak eta garatzaileak eduki behar dira.

Industriako konexioak:

Harremanak ezartzea hardware-hornitzaileekin, errealitate birtualeko teknologia-garatzzaileekin eta, beharbada, adimen artifizialeko adituekin. Konexio horiek funtsezko baliabideetarako sarbidea erraztu dezakete, eta gure enpresa azken berrikuntzetara eguneratuta mantendu.

Banaketa-plataformak:

Bide eraginkorrak beharko ditugu gure produktuak banatzeko. Horrek errealitate birtualeko plataformekin, online denda espezializatuekin eta errealitate birtualeko gailuen fabrikatzaileekin akordioak egitea ekar dezake.

Euskarri teknikoko ekipoa:

Bezerearen esperientzia arazorik gabe bermatzeko, oso garrantzitsua da euskarri teknikoko ekipo bat edukitzea, arazo teknikoei aurre egiteko, galderak erantzun eta erabiltzaileei laguntza emateko.

Marketin-estrategia:

Marketin-estrategia bat garatuko dugu gure zerbitzuak merkatu lehiakor batean nabarmentzeko. Horren barruan sartzen da publizitate digitaleko estrategiak sortzea eta gure produktuen ezaugarri bereziak nabarmenduko dituzten kanpainak egitea.

Merkatu-ikerketa:

Merkatu-ikerketak gure entzuleen beharrei eta lehenetsunari buruzko informazio baliotsua emango digu. Horri esker, gure produktuak eta marketin-estrategiak egokitu ahal izango ditugu merkatuaren eskaerak asetzeko.

Nola lortuko digu baliabide hauek:

Enpresa aurrera eraman ahal izateko dirua lortzeko modu desberdinak daude, modu horietako bat Estatu Batuetako administrazio publikoak ematen dituen laguntza ekonomikoak dira, baina horiek lortu ahal izateko enpresak ezaugarri jakin batzuk bete behar ditu, eta enpresaren ezaugarriak edo inpaktua zenbatekoa den kontuan hartuta, laguntza horiek handiagoak edo txikiagoak izango dira.

Anbar dirulaguntza emakumeen jabetzako enpresentzat:

Enpresa honen sortzaileak emakumeak direnez, finantziario bat eska dezakegu gure proiektua gauzatu ahal izateko. **34.000\$** baino gehiago jasoko ditugu.

Enpresa txikietan berrikuntza ikertzeko dirulaguntzen programa (SBIR):

AEBetan berrikuntza handiko produktuak eskaintzen dituzten enpresa txikiei eta enpresa teknologiko berriei dirulaguntzak ematen dizkie. **1.000.000\$** jaso ahal izango ditugu

Berrikuntza eta Teknologia:

Berrikuntza eta teknologiarako dirulaguntzak, gure proiektuaren izaeraren eta irismenaren arabera, **100.000\$** inguru jaso ahal izango ditugu.

Entretanimenduaren industria eta eduki digitala:

Kategoria honetan, dirulaguntzak gure enpresak duen eraginaren eta industriari egiten dion ekarpenaren arabera izan daitezke. Dirulaguntza **200.000\$**-etik gorakoa izan daiteke

Tokiko Garapen Ekonomikoa:

Tokiko garapen ekonomikorako dirulaguntzak laguntza esanguratsua dira. Gure ekarpenaren arabera **20.000\$** jaso ahal izango ditugu.

Ikerketa eta Garapena (I+G):

I+Grako dirulaguntzak funtsezkoagoak izaten dira, jarduera horiek garestiak direlako. Dirulaguntza **50.000\$**-ekoa izan daiteke.

Turismoa eta Kultura:

Arlo honetako dirulaguntzek kontuan hartzen dute proiektuak turismoan duen eragina. Dirulaguntza **5.000\$**-ekoa izango da.

Prestakuntza eta trebakuntza:

Prestakuntza eta trebakuntzarako dirulaguntzak desberdinak izan daitezke programaren kalitatearen eta mailaren arabera, baina **10.000\$**-eko dirulaguntza jasoko dugu.



Ekintzailletza eta Startupak:

Ekintzailletzarako eta startupetarako dirulaguntzak laguntza finantzario esanguratsua izan daitezke. Gure programa kontuan hartuta, **7.000\$**-eko laguntza jasoko dugu.

Nazioarteko lankidetzak-proiektuak:

Nazioarteko lankidetzak-proiektuetarako dirulaguntzak funtsezkoak izan daitezke, baina gure enpresak izan dezakeen irismena kontuan hartuta, **70.000\$** ere jaso ahal izango ditugu.

Iraunkortasuna eta ingurumena:

Proiektu jasagarrietarako dirulaguntzak aldatu egin daitezke, espero den ingurumen-inpaktuaren arabera. **8000\$**-eko laguntza jasoko dugu.